

**Zk-246**

AGINDUA, 2003ko abenduaren 9koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, «euskal txerria» txerri-arrazaren arauketa zehatza onesten duena.

Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuak, Euskal Herriko bertako abere-arrazei eta hauek sustatzeaz arduratzen diren erakundeei buruzkoak, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Katalogo Ofiziala ezarri zuen, eta arraza-estandarrak onesteko oinarritzko baldintzak ere bai, besteak beste. Gainera, Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseilua sortu zuen.

Dekretu horrek 3.2 artikuluan dioenez, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu baten bidez zehatz-mehatz arautu behar dira dekretuan aipatzen diren arrazak, bertan adierazten den moduan arautu ere; beste alde batetik, 4. artikuluan, arrazen araudiek izan behar dituzten oinarritzko edukiak finkatzen ditu, eta azkenik, 6.3 artikuluan, Arrazen Kontseiluari eginkizun hau ezartzen dio, beste batzuen artean: aginduzko txostenak egitea Katalogoan sartutako arrazen araudi zehatzei buruz eta haien aldaketei buruz.

Horrenbestez, eta Euskal Herriko Bertako Abere-Arrazen Kontseiluarekin bat etorruta, honakoa

## XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– «Euskal txerria» txerri-arraza-aren araudi zehatza onestea, agindu honen eranskinen dagoena.

## AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko abenduaren 9a.  
Nekazaritza eta Arrantza sailburua,  
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## ERANSKINA

«EUSKAL TXERRIA» TXERRI-ARRAZAREN  
ARAUDI ZEHATZA

## 1.– ARRAZAREN EREDU EDO ESTANDARRA.

## 1.1.– Arrazaren definizioa.

Arau hauetan zehazturiko arraza-ereduarekin bat dozenak hartuko dira «euskal txerria» txerri-arrazakotzat.

**Nº-246**

ORDEN de 9 de diciembre de 2003, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se aprueba la reglamentación específica de la raza porcina «Euskal Txerria».

El Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, sobre razas animales autóctonas vascas y entidades dedicadas a su fomento, estableció, entre otros extremos, el Catálogo Oficial de Razas Animales Autóctonas Vascas y las condiciones básicas para proceder a la aprobación de sus correspondientes estándares raciales. Asimismo, creó el Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas.

El meritado Decreto fija, por un lado en su artículo 3.2, que mediante Orden del Consejero de Agricultura y Pesca se establecerán las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas en él incluidas, conforme se fija en dicho Decreto; por otro lado, en su artículo 4, los contenidos básicos a establecer en las reglamentaciones específicas de las razas y, finalmente, en su artículo 6.3, entre las funciones del mencionado Consejo de Razas, la de informar con carácter preceptivo las reglamentaciones específicas correspondientes a las razas incluidas en el Catálogo y sus modificaciones.

En su virtud, y de conformidad con el Consejo de Razas Animales Autóctonas Vascas,

## DISPONGO:

*Artículo único.*– Aprobar la reglamentación específica de la raza porcina «Euskal Txerria», que figura como Anexo a la presente Orden.

## DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2003.  
El Consejero de Agricultura y Pesca,  
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## ANEXO

REGLAMENTACIÓN ESPECÍFICA DE LA RAZA  
PORCINA «EUSKAL TXERRIA»

## 1.– PROTOTIPO O ESTANDAR RACIAL.

## 1.1.– Definición de la raza.

Se definen como ejemplares de la raza porcina «Euskal Txerria» aquellos que corresponden al prototipo racial determinado en la presente norma.

## 1.2.– Arrazaren barietateak.

Ez dago barietaterik «euskal txerria» txerri-arrazan.

## 1.3.– Arrazaren ezaugarri morfologikoak.

## 1.3.1.– Ezaugarri orokorrak.

Ezaugarrieti eta itxura orokorrari dagokienez, arraza eumetrikoa, subkonkaboia eta sublongilineoa da.

## 1.3.2.– Ezaugarri zehatzak.

## a) Burua:

Burua tamaina ertainekoa da eta bekoki-sudurren soslaia subkonkaboia da.

Buruak itxura konikoa du, aurrerantz eta behetik gorantz irteten den muturrarekin.

Belarriak zabalak eta luzeak dira. Horizontaletik behera erortzen den zatiak begiak erabat estaltzen ditu eta askotan muturra baino beherago jaisten da.

Abere oso gazteek zimurrak edukitzen dituzte muturraren atzetik. Heldu ahala zimur horiek galdu egiten dituzte eta beste batzuk agertzen zaizkie bekoki aldean, belarrien lotuneen ondoan.

Lepoa laburra da, sendoa, lepogain nabarmenarekin. Lepopea mehea da. Lepoa, aurreko heren guztian, soinkurutze nabarmenean amaitzen da.

## b) Gorputz-enborra:

Bizkar-gerrialdeko lerroak sakonunea egiten du, gero gorantz egiten du zerraren hasieraraino. Zerra soinkurutzea baino garaiagoa da.

Bularraldea ez da oso handia. Elkarguneen arteko distantzia ertaina da.

Toraxa nahiko zapala da; saihets-hezurak kakotuak eta oso sakonak dira eta horregatik arnasa-edukiera handia da.

Zerra beheratuta dago alderik garaienean eta buzta-naren hasiera baxua da.

Ipurmasailek gihar-masa handiak dituzte. Horrek biribiltasuna ematen die eta urdaiazpikoak maza ederra edukitzen du (gihar-masarik infiltratuena). Belau-naren eta maza amaieraren artean azalak toles batzuk ditu.

Sabel handia eta eroria du, 12-14 titirekin. Beraz, umealdi bakoitzean ume asko hazteko gai da.

## c) Gorputz-adarrak:

Hanka-jarrera: sendoak ditu aurreko hankak zein atzekoak. Horregatik, gai da mendialdeetan larratzeko.

Gorputz-adarrak: aurreko eta atzeko herenek hezur-garapen ona dute; luzetxoak dira gorputzaren neurrien aldean.

Apoak zuriak dira.

## d) Azala:

## 1.2.– Variedades de la raza.

No existen variedades dentro de la raza porcina «Euskal Txerria».

## 1.3.– Características morfológicas de la raza.

## 1.3.1.– Características generales.

En cuanto a los caracteres y apariencia general, se trata de una raza eumétrica, subcóncava y sublongilínea.

## 1.3.2.– Características específicas.

## a) Cabeza:

De tamaño mediano, con perfil frontonasal subcóncavo.

Su forma es cónica, con rodete o jeta dirigido hacia delante de abajo a arriba.

Orejas: amplias, largas y caídas por debajo de lo horizontal, tapando completamente los ojos, y superando en muchos casos el rodete o jeta.

En los animales muy jóvenes se presentan arrugas en las partes posteriores al rodete o jeta, que desaparecen a medida que se hacen adultos, apareciendo otras arrugas en el área frontal junto a la zona de inserción auricular.

El cuello es corto, potente, con morrillo acusado. Papada escasa, el cuello termina en toda el área del tercio anterior en una cruz prominente.

## b) Tronco:

Línea dorsolumbar ensillada, ganando en altura hasta la entrada de la grupa, siendo en esta parte más alta que la cruz.

Pecho no muy acusado, con distancia entre encuentros de proporciones medias.

Tórax ligeramente aplanado, con costillares arqueados y de gran profundidad, lo que le da amplia capacidad respiratoria.

Grupa deprimida en la parte más alta, con nacimiento bajo de la cola.

Masas musculares acusadas en nalgas, lo que le proporciona redondez, y propicia un jamón con buena maza (masas musculares más infiltradas), presentando varios pliegues en la piel del área situada entre la rodilla y el final de la maza.

Vientre amplio y descolgado con presencia de 12 a 14 pezones, lo que le da aptitud para criar camadas amplias.

## c) Extremidades:

Apomos: fuertes en los dos miembros, que le hace apto para el pastoreo en zonas montañosas.

Extremidades: tercio anterior y posterior con buen desarrollo óseo, ligeramente alargado con respecto a las proporciones corporales.

Pezuñas de color blanco.

## d) Piel:

Lodia baina malgua, tolesak erraz egiten dituen.

e) Kolorea eta ilea:

Kolorea nabarra da, tonu horixka edo gorrixekin. Zuri grisaxkara jotzen du enborrean eta sabelaldean, bai eta aurreko eta atzeko hanketan ere, belauna eta apoa bitartean.

Gune beltzak ere baditu, kolore argiagoko guneen ondoko zerrendetan pixkanaka argitzen direnak. Kolore ilun hori buruaren alde guztietan agertzen da, eta inoiz lepo osoa ere estaltzen du, muturra izan ezik, hau pigmenturik gabekoa izan ohi da eta. Halaber, gune beltzak ditu zerraren atzealde guztian eta ipurmasailtan. Handiagoak edo txikiagoak izan daitezke eta batzuetan gerrialdearen zati bat ere estaltzen dute.

Ileari dagokionez, zurda ugariak ditu bizkar-gerrialdearen lerroan, baina urriagoak eta laburragoak dira beheko aldeetan.

f) Neurriak eta pisua:

Arraza eumetrikoa da eta neurri sublongilineoak ditu. Ez dago tamainaren eta pisuaren batez besteko estandarrik. Beraz, askotariko neurriak onartzen dira, hazkuntzaren eta beste inguruabar batzuen arabera.

1.3.3.- Izaera eta portaera.

Abere otzanak dira, hazkuntza estentsiboko bizimodura ohituak.

1.3.4.- Ezaugarri baztertzailak.

Oro har, ezaugarri baztertzaitzat hartuko dira tara hereditario edo malformazio fisiko nabari guztiak, eta arrazarenak ez diren ezaugarriak.

2.- ABEREEN SAILKAPEN MORFOLOGIKOA.

2.1.- Kalifikaziorako baremoa.

Arraza-estandarren betekizunen arabera, puntuazioaren bidez egingo da kalifikazio morfologikoa. Eskualde anatomiko bakoitzari puntu bat emango zaio gutxienez, eta hamar gehienez, ondoko baremo honen arabera:

Kalifikazioa	Puntuak
Ezin hobea	10 puntu
Bikaina	9 puntu
Oso ona	8 puntu
Ona	7 puntu
Onargarria	6 puntu
Nahikoa	5 puntu
Onartezina	5 puntu baino gutxiago

Baloratu beharreko edozein eskualderi 5 puntu baino gutxiago emanaz gero, aberea deskalifikatu egingo da, gainerako eskualdeek lortutako puntuazioa kontuan hartu gabe.

2.2.- Kalifikatu beharreko alderdiak eta haien ponderazioa.

Gruesa pero flexible, tendente a la formación de pliegues.

e) Capa y pelo:

La capa es barcina, con tonalidades rubias o jasas con tendencia al blanco grisáceo en el tronco y abdomen, así como en las extremidades anteriores y posteriores, desde la rodilla hasta la pezuña.

Tonalidades negras que van aclarándose en las franjas cercanas a las zonas de coloración más clara. Esta coloración oscura se presenta en todas las partes de la cabeza, llegando a cubrir todo el cuello, con excepción del rodete o jeta que suele estar despigmentada. Asimismo, presenta zonas negras en toda la parte posterior de la grupa y nalga, siendo más o menos extensa, pudiendo cubrir parte de la zona lumbar.

En cuanto al pelo, se dan cerdas abundantes en la línea dorsolumbar, pero disminuidas en cantidad y longitud a medida que se aproxima a las partes inferiores.

f) Talla y peso:

Raza eumétrica y de proporciones sublongilíneas. No existe una talla y un peso medio estandarizable, por lo que se admite un amplio margen de medición en función de las condiciones de la crianza y de otras circunstancias propias del entorno.

1.3.3.- Carácter y comportamiento.

Son animales dóciles acostumbrados a vivir en condiciones extensivas.

1.3.4.- Caracteres eliminitorios.

De forma general, se considera carácter eliminatorio toda tara hereditaria o malformación física evidente y los caracteres no propios de la raza.

2.- CALIFICACIÓN MORFOLÓGICA DE ANIMALES.

2.1.- Baremo de calificación.

Conforme a las exigencias del estándar racial, la calificación morfológica se realizará sobre la base del método de puntos, asignándole a cada región anatómica de uno a diez, según el siguiente baremo de calificación:

Calificación	Puntuación
Perfecta	10 puntos
Excelente	9 puntos
Muy Buena	8 puntos
Buena	7 puntos
Aceptable	6 puntos
Suficiente	5 puntos
Inaceptable	Menos de 5 puntos

La adjudicación de menos de cinco puntos a cualquiera de las regiones de valoración será causa de descalificación, sin que se tenga en cuenta el valor obtenido para los restantes.

2.2.- Aspectos de calificación y su ponderación.

Jarraian adierazten da kalifikatu behar diren alderdiak zein diren. Haietariko bakoitzerako, gainera, ponderazio-koefizientea adierazten da.

Eskualde bakoitzari emandako puntuazioa dagokion koefizienteaz biderkatuko da, eta hala aberearen behin betiko puntuazioa lortuko da:

Koefiziente biderkatzaileak

Kalifikatu beharreko eskualdeak	Arrak	Emeak
Burua eta lepoa	1,5	1,5
Sorbaldak eta soinkurutzea	1	1
Bularraldeak eta saihsaldea	1	1
Bizkarraldeak eta gerrialdeak	1	1
Zerra eta buztana	1	1,5
Gorputz-adarrak eta hanka-jarrera	1,5	1,5
Sexu-ezaugarriak	0,5	0,5
Izaera eta itxura orokorra	2,5	2
Guztira	10	10

Azken puntuazioa horrela lortuta, abereak kategorian hauen arabera sailkatuko dira:

Kategoria	Lortutako puntuak
Ezin hobea	100
Bikaina	91 - 99,99
Oso ona	81 - 90,99
Ona	75 - 80,99
Onargarria	70 - 74,99
Nahikoa	60 - 69,99
Eskasa	55 - 59,99
Txarra	55 baino gutxiago

### 3.- GENEALOGIA LIBURUA.

3.1.- «Euskal txerria» txerri-arrazaren Genealogia Liburua jarraian ageri diren erregistroetan egituratuko da:

a) Fundazio Erregistroa (FE).

Beheko baldintzak betetzen dituzten abere ar eta emeak jasoko dira Fundazio Erregistroan:

– Arrazarako zehaztu diren ezaugarri etnikoak eduki-  
kitzea.

– Gutxienez hamabi hilabete izatea, bai arrek eta bai emeek.

– Arrazaren ereduaren arabera, gutxienez 60 puntu lortzea emeen kasuan, eta arren kasuan, 65 puntu.

– Erregistro honetan inskribatzeko, 3 urteko epea onartuko da emeentzat, eta urtebetekoa arrentzat, beti ere arrazari buruzko araudi hau ofizialki onetsiz geroztik.

b) Jaiotzen Erregistroa (JE).

Fundazio Erregistroan edo Behin betiko Erregistroan inskribatutako abereen umeak sartuko dira erregistro honetan, arrak zein emeak direlarik, baldin eta eskakizun hauek betetzen badira:

Las regiones anatómicas objeto de calificación serán las que a continuación se relacionan, con expresión para cada uno de ellos, del coeficiente de ponderación.

Los puntos que se asignen a cada uno de dichos aspectos se multiplicarán por el coeficiente correspondiente, resultando así la puntuación definitiva del animal:

Coeficientes Multiplicadores

Regiones de calificación	Machos	Hembras
Cabeza y cuello	1,5	1,5
Espalda y cruz	1	1
Pecho y costillas	1	1
Dorso y lomo	1	1
Grupa y cola	1	1,5
Miembros y aplomos	1,5	1,5
Caracteres sexuales	0,5	0,5
Temperamento y conjunto de formas	2,5	2
Total	10	10

Obtenida así la puntuación final, los ejemplares quedarán clasificados según las siguientes categorías:

Categoría	Puntos obtenidos
Perfecto	100
Excelente	91 a 99,99
Muy bueno	81 a 90,99
Bueno	75 a 80,99
Aceptable	70 a 74,99
Suficiente	60 a 69,99
Insuficiente	55 a 59,99
Malo	Menos de 55

### 3.- LIBRO GENEALÓGICO.

3.1.- El Libro Genealógico de la raza porcina «Euskal Txerria» estará estructurado en los registros que figuran a continuación:

a) Registro Fundacional (RF).

Figurarán en este Registro los ejemplares machos y hembras que reúnan las siguientes condiciones:

– Presentar las características étnicas definidas para la raza.

– Contar, al menos, con doce meses tanto en el caso de los machos como de las hembras.

– Poseer una calificación racial con una puntuación mínima de 60 puntos en las hembras, y 65 los machos.

– Para la inscripción en este registro se admitirá un plazo de 3 años para las hembras y 1 año para los machos, a partir de la aprobación oficial de la presente reglamentación de la raza.

b) Registro de Nacimientos (RN).

En este registro se incluirán las crías de ambos sexos descendientes de animales ya inscritos en el Registro Fundacional o Definitivo, siempre que reúnan los siguientes requisitos:

- Arrazaren berezko ezaugarriak edukitzea.
- Tara edo akatsik ez izatea.
- Emeen ugalketaren kontrola edukitzea.
- Erregistro honetan inskribatzeko eskabidea aurkeztea, txerrikumeari titia kendu baino lehen.

c) Behin betiko Erregistroa (BE).–

Behin adin batera ezker (hiru urte, emeak badira, eta hogeita hamar hilabete, arrak badira), Jaiotza Erregistroko abereak Behin betiko Erregistroan inskribatu ahal izango dira, 60 eta 65 puntuko kalifikazio morfolo- logikoa gaintuz gero (60koa emeek, 65koa arrek).

Ugalkortasun edo emankortasun gutxiko ezaugarri hereditarioak edota umetarako ezaugarri txarrak antze- manez gero, umetarako abere guztiei (arrak zein emeak) eta haien ondorengoei baja eman behar zaie erre- gistro honetan.

Genealogia Liburuko inskripzioak animalien jato- rriagatik edo animalien ezaugarriengatik (hau da, abia- buru gisa) egin daitezke. Bigarren aukera hori Funda- zio Erregistroan inskriba daitezkeen animaliei dagokie.

Jatorriagatik inskribatzen diren animaliei dagokie- nez, jatorriagatik edo ezaugarriengatik inskribatutako «euskal txerria» arrazako txerri emeengandik jaiotzen diren animaliak berez inskribatuko dira, baldin eta txer- rri eme horiek izaera bereko arrek estaliak badira, eta alde zurretik estaldura eta jaiotza aitortzen badira.

3.2.– Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuaren 5.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, dekretu horren arabe- ra ofizialki onartuak diren sustapen erakundeei baime- na eman ahal izango zaie, Nekazaritza eta Landa Gara- peneko sailburuordearen ebazpenaren bitartez, genea- logia liburuak kudeatzeko, ebazpenean bertan adieraz- ten den eran.

4.– ABEREEN ONARPENA ETA KALIFIKAZIOA.

Abenduaren 26ko 373/2001 Dekretuaren 6.4 arti- kuluan eta azken xedapenatariko bigarrenean ezarrita- koaren arabera, Genealogia Liburuaren Batzordeak eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

a) Arraza katalogatuaren Genealogia Liburuan ani- maliak inskribatzeko eskabideak aztertzea, araudi ze- hatz honetan ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko.

b) Animaliak kalifikatzea. Batzordeak bere eginki- zun hori pertsona eskudunei eman ahalko die, beti ere berak gainbegiraturik.

c) Kalifikatutako animaliak onar daitezela erabaki- tzea, bidezkoa bada.

d) Genealogia agiriak ematea; eginkizun hori onar- pen ofiziala duten erakundeen esku utzi ahalko du.

e) Genealogia Liburuaren funtzionamenduari jara- mon egitea eta gorabeherak konpontzea.

- Poseer las características propias de la raza.
- No presentar taras ni defectos.
- Disponer de un control reproductivo de las hem- bras
- Presentar la solicitud de inscripción en este Re- gistro, con anterioridad al destete de la cría.

c) Registro Definitivo (RD).

En este Registro podrán inscribirse los animales pro- cedentes del RN al cumplir la edad de tres años para las hembras y treinta meses para los machos, habiendo superado la calificación morfológica de 60 y 65 puntos respectivamente.

Deberán causar baja en este registro todos los repro- ductores, machos y hembras y la descendencia de los mismos, cuando puedan apreciarse condiciones heredi- tarias de baja fertilidad, fecundidad o deficientes cua- lidades maternas.

Las inscripciones en el Libro Genealógico podrán ha- cerse a título de ascendencia o a título inicial, este úl- timo corresponderá a los ejemplares que puedan inscri- birse en el Registro Fundacional.

Respecto a la inscripción a título de ascendencia, se- rán inscritos automáticamente los animales nacidos a partir de cerdas Euskal Txerria registradas a título ini- cial o a título de ascendencia, cubiertas por sementales Euskal Txerria de igual condición, siempre que con an- terioridad sea declarada tanto la cubrición como el na- cimiento.

3.2.– Conforme a lo fijado en el artículo 5.6 del De- creto 373/2001, de 26 de diciembre, las entidades de fomento reconocidas oficialmente conforme al mismo podrán ser autorizadas, mediante Resolución del Vice- consejero de Agricultura y Desarrollo Rural, a realizar la llevanza de libros genealógicos en las condiciones que se fijen en la misma.

4.– ADMISIÓN Y CALIFICACIÓN DE ANIMALES.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 6.4 y la Disposición Final Segunda del Decreto 373/2001, de 26 de diciembre, la Comisión del Libro Genealógico realizará, entre otras, las siguientes funciones:

a) Examinar las solicitudes de inscripción en el Li- bro Genealógico de la raza catalogada, con el fin de ve- rificar el cumplimiento de lo establecido en la presen- te reglamentación específica.

b) Calificar los animales. La Comisión podrá dele- gar esta función en la/s persona/s competentes bajo su supervisión.

c) Acordar la admisión, si procede, de los ejempla- res calificados.

d) Expedir la documentación genealógica, lo cual po- drá delegarse en las entidades reconocidas oficialmente.

e) Atender y resolver las diferentes incidencias en el funcionamiento del Libro Genealógico.